

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEAREN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA, 2013

Joan zen azaroaren 26an Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osokoak aho batez onetsi zuten Euskal Herriko Unibertsitatearen ekonomia-finantza jardueraren 2013ko ekitaldiari buruzko fiskalizazio txostena.

Txostenak ondorioztatu du Unibertsitateak zuzentasunez bete duela 2013an ekonomia-finantzazko jarduera arautu duen lege arautegia; alabaina, zenbait ez-betetze azaleratu dira bai Langileen Gastuen alorrean (irakasleei arautegian aurreikusi gabeko kontzeptuengatik 770.120 euroren ordainsariak ordaintzea; irakasle eta ikerlarien lanpostu zerrenda EHAAn ez argitaratzea; eta aldi baterako lan kontratua duten irakasle eta ikerlariarentzat Unibertsitateen Lege Organikoak ezarritako irakasleen plantillaren % 40ko muga gainditzea), bai Administrazioako Kontratazioan ere (1,8 milioi euroren gastuak, oker kontratu txiki modura izapidetu direnak eta indarreko kontratuak saihestuta egindako 1,3 milioi euroren gastuak).

Urteko kontuei dagokienez, HKEEk **aldeko iritzia** eman du; salbuespen dira Konpromiso Kredituen Egoera ez barne hartu izana eta hainbat kontularitzako doiketa, Diruzaintzako Geldikina 8 milioi euroan murriztuko luketenak eta Ondare Garbia 1,4 milioi euroan gehituko luketenak. Gainera, HKEEk ezin eman izan du iritzirik Berriazko Geldikinaren zuzentasunaren gainean (98,3 milioi euro), zeinaren atal bat Gastu Orokorretarako Geldikintzat hartu behar litzatekeen, ez eta Bibliografia Funtsen saldoaren gainean ere, kontularitzan 23,3 milioi euroren balio garbia duena.

Finantza egoerari dagokionez, Epaitegiak adierazi du diru-sarrerek behera egin dutela bai diru-laguntza eta transferentzia arruntetatik eratorritakoek, bai kapital transferentzietakoek ere; baita, inbertsioek eragindako gastuak, zorpetzeak eta diruzaintza geldikinak ere. Azkenik, Epaitegiak azpimarratu du nabarmen **murriztu dela Unibertsitatearen inbertsio gaitasuna** eta horren ondorioz, inbertsioen egikaritza etorkizunean kinka larrian egon daiteke horiei aurre egiteko behar hainbateko finantzaketarik eskuratu ezean.

Txostenak ondorioztatu du 2013ko ekitaldiari dagokion aurrekontuaren likidazioak **finantza oreka eta iraunkortasunaren printzipioak** betetzen dituela eta bete dela, gainera, 2013rako ezarritako bai **defizitaren** bai **zor publikoaren helburua** ere.